



ARRUAZU
ARRUAZU

ARRUAZU

(Tomas Ganboa ezkiljotzailea)

Gu, mutiko txikiyak giñala, lengo sakristubaaki faten giñen gora, ezkildorrea berai laguntzea eta ikusi nola jotzen zuan, eta gero hori joan zan Iruñara bizitzea, lengo sakristauba, eta gue aittek hartu zuen kargu hoi, erlejuba ta ezkillen jo ta hori, ta nik ordubeh hamasei urte ero irukiko nittun eta biyon artian itten giñuen, bueno hure hasi zen lendabizi, ta gero ya nik dena itten nuen, goizien ta asaldien ta gaubien ta denetan.

Bai nik e estudioik eztoke, solfeo ta gauzoik musiken ezer ere, baño de puro gora itzoo ta jetxi, itzoo ta jetxi, pues, e, hola konsegitzen da badakizu, gauza, egunero zerbait berriya.

Gero hemen nola jei asko izeten zen, beti hemen Arbazun, jei txikiyak eta haundiyak, eta urtian buruban e, oai halako doble jei izeten zen ba, ta, hasi goizeko argiezkilla ta meza nausia ta bezpera ta, prozesio ta, urtian askotan itten zen errepika jo, hemen, bai.

Bai, askos gehiago, doble ta gehiago, len hemen jei txiki asko zian ta pazko birren eta, launbetero de errepika jotzen zen, eta gero bezperak e bei, iyendetan ta, pues errepika, gero San Migel etortzen zenean beste herrietara de pasatzen zenean herritik, igual hamar, ordu kuarto at dale, jo ezkillen, beti izan du Arbazuk ezkillen asunto hortan e...

Hemen, beste herriten ni ibillia neiz pixket begida eta, meza lagunzalie eta, Uharten eta, hola jotzen ttube lau golpe eman eta hola, inportantzi handiik gabe, baño hor e Iribas ta, eerki jotzen ttuben, badia jendiak e, Lekunberri alde hortan, Uizi ta hor de, hemen bezela soka lotuta, errepika dotoria ateratzen da ba.

– Eta ezkillen jotzeko manera diferenteak izango dira, edo bakoitzak, ezkiljotzalle bakoitzak, badu bere modue edo teknika edo...

– Bai, hortan guk, nik uste ot bentaja dugula eh?, soka lotu ta atzekaldian jotzea, zergatik lendaiziko kanpeonatu in zianian Ihabarren, jende askok jartzen zittuben hola miyek, ezkillen miyek, «a pulso» esaten den bezela, eta jotzen zittuban, ta gutxigo bariatu ta gehio nekatzen da bakizu, «en cambio» guk atzekaldian soka lotziaekin, pues, e, konbinazio gauza gehio konsegitzen dou.

– Eta zera, gero ezkilari, eztakit, sonido ona edo, zera hori ona ateratzeko, inportantzia ba al du horretan, zera, ezkilaren kalidadeak edo... ezkila guziak eztira igual, batetik bestera diferentziak izango dira...

– Ezkille denak diferentziak dira eh!, jendiak eztaki, baina soñuba denak diferentea due, ta igual zu hemen oittuik zaude ezkillargiekin eskubitik o illune ezkerretik eta beste herri betea jua ta han kanbiatuik daude, ta in beazu mañatu herrian zuen bezela, entenditzen duzu?, ta problema gehiena hoetan izeten da ezkilla txikiya balin bada, txikiya balin bada moittu itten da, ta ya ritmo guzia galtzen duzu eta jartzen zara nerbioso, ta eztuzu konsegitzen.

– Eta esate baterako, zure ustez zeintzu dira ezkilik onenak, hola jotzeko edo, hemen Naparroan, Arbazukoak onak dire jotzeko?

– Bai, ezta herria defenditziatik baño oso onak dia hemengo ezkillak, eh?, nahiz aun tamañuan eta soñuan de ondo.

Ta gero Iruñen de egondu nitzen ni katedralian eta han e, bi ezkille eerrak, klaro katedralien normala da haundiyekek eotia.

ta gero beste herri batzuten de, dezente ikusi ttut, Uizin eta Lekunberrin de bastante onak daude eta hola, baño beste... ellegatu neiz joatea Iruñerria, beste herri betzuta, bandeoa eitten ttuben ezkille hoek jotzea, ta han e, preparatzen denboa gehio pasatzen duzu jotzen baño, zengatik e jarri, fijetu beharra due ba, ezpauzu ezkilla fijetzen e, moittu itten da, ta ya, orduban hala akabatzen da gauza.

– Adizu, eztakit, kontatu digute ere guri lehen ere, holako harria edo kazkabarra izaten zenean, halako konjuruak ere jotzen zirela, holakorik jotzen al da oraindik ere?

– Bai oain e, harrik e gutxi botatzen du eta, «además» izeten zen konjurua, apezak o edozein jendek jotzen zittuen ezkil bakar batzuk, eta apezak erreza-tzen zuen responso holako at baño, horrek ez zuken holako meritu haundirik, ezkil horrek etzoken.

– Baina zera, konjuro hori jo ta jada harria botatzetik gelditzen zen?

– Ba, hori pues, e, hainbeste anekdota klase aitzen duzu, elizeko gauzek e, gauza asko izeten dia egiak, beste atzuk pues, e, len pasatuiko gauzek eta, batien santuba sartu zubela errekaa sekoa ziolakos ta harria bota zuela ondorian ta, hainbeste gauza aitzen duzu, pues, e ...

– Orduan jotzen zenuten lehen, eztakit, hola lehortea edo sikatea zelarik ere jotzen zenuten euria egiteko, edo holakorik, ez?

– Ez, auria itteko rogatibak beti, San Pedrua, hemen dou ermite bet dotoria, hor gainalde hortan, eta orduban rogatibekin joan eta orduban e, errepika bai, hemen errepikaik gabe etzion bizitzeik.

– Orduan zuri gustatzen dakizu jotzea?

– Jotzia ta aitzia de bai, beste at ai dela jotzen aittu de, gauza... jei bezperetan eta, gauza haundiya da hori.

– Hola, jende normalentzako eta, ezkil bat aditu, beste bat, eta denak igual, baina zuentzako... honek falloa egin dik, honek eztakit zer, ta holakoak berehala ezta?

– Ya, hemengo jendea oso esijentea da gauza hortan, jesten zaanian segiduen esaten dizube, gaur e, ondo aittu yaiz edo geizki aittu yaiz, segiduen, hemen e, goittik jesten zaanien, egiya da hori bai.

– Adizu, bueno, garai batean edo duela, eztakit, hamar edo zortzi urte behar bada kanpeonatuak egin ziren hemen, lhabarren edo, non egin ziren?, orai ezta halakorik egiten edo exhibizioetan aritzen zarete zuek edo...

– Bai, oain dala hogeai urte eo lhabarren organizatu zittuben bi kanpeonato, bueno lendabizi bat eta geo beste bat, apez batek, eta ordubien e asko bildu giñen jotzalie, Rioja ta, Bizkaia ta, jende asko bildu giñen, ta ni suertes o «por lo que sea», bi urtetan irebezi nuan, ta gero apez hure egin zen e, azidentian hil, eta ondorian handik urte batzutaa hemengo soziedadiak edo hola pentsatu zuben, pues hemen ezkil onak eta jotzale onak, pues hemen in behar dou, eta hemen hasi zian eitten eta jendea dezente etortzen zan, baño esaten zuben, «es que» aldiro horrek Tomasek irebezten du, pues, hemen beste zerbeit e pentsatu beharra dago, ta gero bi urtes o in zen holako esibizio at edo bezela, bakoitzek e, bee tokiek jotzeko, bee tierra eo bee lurraldekoak. Eta gero atzenian soziedadian asamblea atian tratatu zen ya ezukela gauza, festa hoi organizatzeko holako gauza haundiya, ta utzi ein zan eitteas bei.

Oain e, joaten neiz otsaiten dien tokitaa, baño iñon, Arbazun, joan den bi-hiru urtian ezer ezta ein.

– Aurrera begira hola segituko duzu, ezkila jotzen?

– Ni, bai, osasuna doten bittertien ni... joko ot behintzet e, asko gustetzen dakit, eta orein e beste mutiko at dago karguben eh! Enterrador, sakristu ta erlejuben gauza hortan beste mutil bet dago, baño hala de noiznahi e hotsaiten.. bera ezin duenian ta faten neiz eta gustora aitzen neiz.

– Hori esan behar nizun, ia gazteen artean inork afiziorik hartuko ote duen edo...

– Eztao e, oain e, eztao gaztetan afizio haundiik, neio dube hemen eotea karriken o soziedadian o... eztao afizioik jotzeko, Arbazun behintzet, motikotan ta hola, ezkillen asunto hortan, ez.

ARRUAZU

(Tomas Ganboa ezkiljotzailea)

Gu, mutiko txikiak ginela, lehengo sakristauarekin joaten ginen gora, ez-kildorrera berari laguntzera eta ikusi nola jotzen zuen, eta gero hori joan zen Iruñera bizitzera, lehengo sakristaua, eta gure aitak hartu zuen kargu hori, erlojua eta ezkila jo eta hori, eta nik orduan hamasei urte edo edukiko nituen eta bion artean egiten genuen, bueno hura hasi zen lehendabizi, eta gero jada nik dena egiten nuen, goizean eta arratsaldean eta gauean eta denetan.

Bai, nik estudiorik ez daukat, solfeo eta gauza horiek musikan ezer ere, baino «de puro» gora itzoo¹ eta jaitsi, itzoo eta jaitsi, pues, e, horrela konsegitzen da badakizu gauza, egunero zerbait berria.

Gero hemen nola jai asko izaten zen, beti hemen Arruazun, jai txikiak eta haundiak, eta urtearen buruan, orain halako doble jai izaten zen ba, eta, hasi goizeko argiezkila eta meza nagusia eta bezpera eta, prozesio eta, urtean askotan egiten zen errepika jo, hemen, bai.

Bai, askoz gehiago, doble eta gehiago, lehen hemen jai txiki asko ziren eta bazko bigarrena eta, larunbatero ere errepika jotzen zen, eta gero bezperak ere bai, igandetan eta, pues, errepika, gero San Migel etortzen zenean beste herrietara ere pasatzen zenean herritik, igual hamar, ordu kuarto bat dale, jo ezkila, beti izan du Arruazuk ezkilen asunto horretan, e...

Hemen, beste herrietan ni ibilia naiz piska bat begira eta, meza laguntzailerek eta, Uhartan eta, horrela jotzen dituzte lau kolpe eman eta horrela, inportantzia handirik gabe, baina hor, Iribas eta, ederki jotzen dituzten, badira jendeak e, Lekunberri alde horretan, Uitzu eta hor ere, hemen bezala soka lotuta, errepika dotorea ateratzen da ba.

– Eta ezkila jotzeko manera diferenteak izango dira, edo bakoitzak, ezkiljotzaile bakoitzak, badu bere modua, edo teknika edo...

– Bai, horretan guk, nik uste dut bentaja dugula, eh?, soka lotu eta atzekaldean jotzea, zergatik lehendabiziko kanpeonatoak egin zirenean Ihabarren, jende askok jartzen zituen horrela mihiak, ezkilen mihiak «a pulso» esaten den bezala, eta jotzen zituen, eta gutxiago bariatu eta gehiago nekatzen da, badakizu, «en cambio» guk atzekaldean soka lotzarekin, pues, konbinazio gauza gehiago konsegitzen dugu.

(1) Igo; igan.

– Eta zera, gero ezkilari, eztakit, sonido ona edo, zera hori ona ateratzeko, inportantzia ba al du horretan, zera, ezkilaren kalitateak edo... ezkila guziak ez dira igual, batetik bestera diferentziak izango dira...

– Ezkila denak diferenteak dira eh!, jendeak ez daki, baina soinua denak diferentea dute, eta igual zu hemen ohiturik zaude ezkilargiekin eskubitik edo iluna ezkerretik, eta beste herri batera joan eta han kanbiaturik daude, eta egin behar duzu maina hartu herrian zuten bezala, entenditzen duzu?, eta problema gehiena horietan izaten da, ezkila txikia baldin bada, txikia baldin bada, mugitu egiten da, eta jada erritmo guzia galtzen duzu, eta jartzen zara nerbio-so, eta ez duzu konsegitzen.

– Eta esate baterako, zure ustez zeintzu dira ezkilarik onenak, hola jotzeko edo, hemen Nafarroan, Arruazukoak onak dira jotzeko?

– Bai, ez da herria defenditzeagatik baina oso onak dira hemengo ezkilak, eh?, nahiz «aun»² tamainan eta soinuan ere ondo.

Eta gero Iruñean ere egon nintzen ni katedralean eta han ere... bi ezkila ederrak, klaro katedralean normala da handiak egotea. Eta gero beste herri batzuetan ere, dexente ikusi ditut, Uitzin eta Lekunberrin ere bastante onak daude, eta horrela, baina beste... ailegatu naiz joatera Iruñerrira, beste herri batzutura, bandeoa(k) egiten dituzten ezkila horiek jotzera, eta han, preparamen denbora gehiago pasatzen duzu jotzen baino, zengatik e, jarri, fijatu beharra dute ba, ez baduzu ezkila fijatzen, mugitu egiten da eta jada orduan, hala akabatzen da gauza.

– Adizu, ez dakit, kontatu digute ere guri, lehen ere holako harria edo kazkabarra izaten zenean, halako konjuruak ere jotzen zirela, holakorik jotzen al da oraindik ere?

– Bai orain ere, harririk ere gutxi botatzen du eta, «además» izaten zen konjuruak, apezak edo edozein jendeak jotzen zituen ezkil bakar batzuk, eta apezak errezatzen zuen erresponso holako bat baina, horrek ez zeukan holako meritu handirik, ezkila horrek ez zeukan...

– Baina, zera, konjuro hori jo eta jadanik harria botatzetik gelditzen zen?

– Ba, hori, pues e, hainbeste anekdota klase aditzen duzu, elizako gauzak ere, gauza asko izaten dira egiak, beste batzuk pues e, lehen pasaturiko gauzak eta, batean saildua sartu zutela errekarra, sekoa zihoalako eta harria bota zuela ondorean eta, hainbeste gauza aditzen duzu, pues e...

– Orduan jotzen zenuten lehen, ez dakit, hola lehortea edo sikatea zelarik ere, jotzen zenuten euria egiteko, edo holakorik, ez?

– Ez, euria egiteko errogatibak beti, San Pedrora, hemen dugu ermita bat dotorea, hor gainalde horretan, eta orduan errogatibekin joan eta orduan ere, errepika bai, hemen errepikarik gabe ez zegoen bizitzerik.

– Orduan zuri gustatzen zaizu jotzea?

(2) Incluso.

– Jotzea eta aditzea ere bai, beste bat ari dela jotzen aditu ere, gauza... jai bezperetan eta, gauza haundia da hori.

– Horrela, jende normalentzako eta, ezkila bat aditu, beste bat, eta denak igual, baina zuentzako... honek falloa egin dik, horrek ez dakit zer, eta hola-koak berehala, ezta?

– Ja ³, hemengo jendea oso esijentea da gauza horretan, jaisten zarenean segituan esaten dizute, gaur e, ondo aritu haiz edo gaizki aritu haiz, segituan, hemen e, goitik jaisten zarenean, egia da hori, bai.

– Adizu, bueno, garai batean edo, duela ez dakit, hamar edo zortzi urte behar bada, kanpeonatoak egin ziren hemen, lhabarren edo, non egin ziren?, orain ez da halakorik egiten edo, exhibizioetan aritzen zarete zuek edo...

– Bai, orain dela hogeit hamar urte edo, lhabarren organizatu zituen bi kanpeonato, bueno, lehendabizi bat eta gero beste bat, apez batek, eta orduan ere asko bildu ginen jotzaileak, Errioxa eta, Bizkaia eta, jende asko bildu ginen, eta ni suertez edo «por lo que sea», bi urtetan irabazi nuen, eta gero apez hura egin zen e, azidentean hil, eta ondoren handik urte batzuetara hemengo soziedadeak edo hola pentsatu zuen, pues hemen ezkil onak eta jotzale onak, pues, hemen egin behar dugu, eta hemen hasi ziren egiten eta jendea dexente etortzen zen, baina esaten zuten «es que» aldiro horrek, Tomasek irabazten du, pues, hemen beste zerbait ere pentsatu beharra dago, eta gero bi urtez edo egin zen holako exhibizio bat edo bezala, bakoitzak e, bere tokeak jotzeko, bere tierra edo bere lurraldekoak. Eta gero atzenean soziedadean asanblea batean tratatu zen jada ez zeukala gauza, festa hori organizatzeko holako gauza handia, eta utzi egin zen egiteaz, bai. Orain ere, joaten naiz hots egiten didaten tokitara, baina inon, Arruazun, joan den bi-hiru urtean ezer ez da egin.

– Aurrera begira, hola segituko duzu, ezkila jotzen?

– Ni(k), bai, osasuna dudan bitartean, ni(k)... joko dut behintzat, asko gustatzen zait, eta orain ere, beste mutiko bat dago karguan eh! Enterrador, sakristau eta erlojuaren gauza horretan beste mutil bat dago, baina hala ere noiznahi ere hots egiten... bera(k) ezin duenian eta, joaten naiz eta gustora aritzen naiz.

– Hori esan behar nizun, ea gazteen artean inork afiziorik hartuko ote duen edo...

– Ez dago, orain e, ez dago gazteetan afizio handirik, nahiago dute hemen egotea karrikan edo soziedadean edo... ez dago afiziorik jotzeko, Arruazun behintzat, mutikotan eta hola, ezkilen asunto horretan, ez.

(3) Erderazko «ya».